

SARTU edo Erregistratu doan.
Eta abantaila hauetaz gozatu:

- Harpidedunentzako edukietara sarbidea.
- Iruzkinek egiteko aukera.

GARA

PAPEREZKO EDIZIOA

[EGUNEKO GAIAK](#) | [IRITZIA](#) | [EUSKAL HERRIA](#) | [MUNDUA](#) | [EKONOMIA](#) | [KIROLAK](#) | [KULTURA](#)



2014/05/13





[IRITZIA](#) + | [KOLABORAZIOAK](#)

 **PATXI ZABALETA**
ARALARREKO KOORDINATZAILE NAGUSIA

JULEN MADARIAGAREN LEKUKOTASUNA

Bakeari, biktimen duintasun politikoari eta etorkizuneko elkarbizitzari berari beharrezkoa zaio ET Aren izaera politikoaitortua izan dadin

 [INPRIMATU](#)  [BIDALI](#)

    0

Julen Madariagak laster batean argitaratuko du bere biografia politikoia; «Egiari Zor» izena daraman liburua. Lekukotasun liburua izanen da, testigantza liburu bat alegia.

Inoiz baino gehiago, beharrezkoa zaigu orain horrelako liburu bat; hain zuzen ere, Julenen lekukotasunak balio erantsia daukalako Estatuaren «kausa orokorreko» leloari erantzuteko. Julen Madariaga ET Aren sortzaileak izan ziren taldeko kidea da, erakundearen unerik larrienetan protagonista garrantzitsua izan zelako, adibidez V. eta VI. asanbladetakoa hausturakoan, eta abar. Madariaga Aralar alderdiko erkide da sortu zenetik, orain dela 15 urte. Alderdi honetatik errepikatu du behin eta berriro mezu tinko bezain indartsu baten deiadarra; zera, alegia, ETA



arrazoi soilik politikoengatik sortu zen eta arrazoi soil-soilik politikoengatik eten behar du. Hortxe dago bere mezua eta horixe da bere lekukotasunaren sakontasuna.

2011-10-10ean ETA erakundeak borroka armatuaren behin betiko uztea jakinarazi zuenetik bi urte eta erdi luze igaro dira. Erakundeak aldebakartasunez iragarri zuen bere erabakia. Inolako ordainik edo prezio politikorik gabe; inolako lorpen edo trukerik gabe. Euskal herriari, abertzalegoari, euskal gizartearen etorkizunari eta batez ere euskal duintasunari horrela komeni zaigu. Bide politiko eta demokratikotik irabazi behar eta nahi ditugu gure xedeak eta helburuak.

Baina orain 2014ko erdialde honetan Espainiako Estatuak «kausa orokorra» irekita baleuka bezala jokatzera erabaki du. Bere xedea da ETAREN izaera eta historia eta bukaera gaizkileen mailakoa bezala irudikatzea, terrorismo eta indarkeria hutsean mugatzea eta politika mailako inolako arrazoirik, argudiorik edo xederik ez aitortzea ETARI. Duela bi urte eta erdi arte «kausa orokorrak» bere geziak eta erasoak bakearen ordaina edo prezio politikoaren aurka jaurtikitzen zituen; orain ETAREN izaera politikoaren aurka jotzen dute su eta gar. Hori da lehiatu behar duguna.

Izan ere, egia bestelakoa da. Egiak erakusten duenez, ETA fenomeno politikoa izan da, nahiz eta bere ekintzek maiz ankerkeria eta nozimendua eragin duten. Etakideak ez dira mertzenarioak izan, baizik eta irizpide, xede eta borondate politikoengatik borrokatu direnak, nahiz eta beren borroka samina eta nozimendua eragin duen.

Bakeari, biktimen duintasun politikoari eta etorkizuneko elkarbizitzari berari beharrezkoa zaio ETAREN izaera politikoa aitortua izan dadin. Aitortza horrek eta soilik horrek ematen baitie maila politikoa eta ondorioz erreferentzia ikurra biktimei. Egia da aldi berean aitortza horixe dela biktima guztiak berdinak direla frogatzen duena. Horregatik dauka hainbesteko garrantzia eztabaida honek.

Frankismoak Causa General deitutako egitasmoa 1940an sortu eta 30 urtez garatu zuen. Asmatzaileak frankismoaren egiturako eraikitzaile azkarrenak izan ziren, Esteban Bilbao eta Aunos, erregimen hain injustu hartako «justicia» ministro ohiak alegia. Causa General zelakoaren xedea erregimena argudioz eta zilegitasunez hornitzea zen eta trantsizioa deitutako aroak ez zuen ez arbuia, ez azertu, ezta arakatu ere; horretan ikusten da, beste hainbeste arlotan bezala, trantsizioaren axalkeria.

Hemen eta orain, borroka armatuaren etenaren bi urte eta erdira gauden honetan, elkarbizitzako lehia ideologiko nagusia zera bilakatu da, ea ETAREN borroka izaera politikorik bazeukan ala ez. Barkamena eta damua ardatz bezala jartzeak eta elkarbizitzaren oinarrian (gezurrezko) lau sentsibilitate nagusien adostasunetan oinarritzea bilatzeak izaera politiko hori ukatzen du. Beraz, ez dago JELTzaileen laguntza itxaroterik lehia Kausa Orokorraren lehian, Gernikako Akordioaren arriskueta busti ez zen bezalaxe.

Gauza bat da borroka armatuaren erabilera ez justifikatzea edo ez

naiz: **naiz:** 4m
@naiz_info

[Bideoa] @bizimugi-k 1,8 tona ikatz bota ditu @societeGenerale-aren aurrean #AlphaCoal youtu.be/iRcvahcC5qE naiz.info/eu/actualidad/...

Show Media



naiz: **naiz:** 22m
@naiz_info

[GALERÍA DE IMÁGENES] Abdica Juan Carlos de Borbón naiz.info/mediateca/imag...

Expand



naiz: **naiz:** 27m
@naiz_info

Felipe Borbón espetó «ya has tenido tu minuto de gloria» a una joven en Iruñea, al ser cuestionado por la monarquía naiz.info/eu/actualidad/...

Expand



naiz: **naiz:** 49m
@naiz_info

[Vídeo] @GureEskuDago reunirá en un documental su experiencia en torno al derecho a decidir naiz.info/eu/actualidad/... #GureEskuBidea

Expand



naiz: **naiz:** 1h
@naiz_info

Juan Carlos de #Borbón comunicará esta mañana «personalmente» los motivos de su

onartzea edo/eta lorpen eta aurrerapen politikoak soilik bide politikoetatik eskuratu behar direla uste izatea eta beste gauza oso ezberdin bat da ETA erakundearen edo etakideen jatorri, xede eta izaera politikoa ukatzea.

Euskal Herria eta euskal politikariak politikaren zilegitasunetik mintzatu zaizkio ETAr 50 urte luzez. Zergatik izaera politikoa ukatu? Euskal gizarteari eta etorkizuneko elkarbizitza zintzoari premiazkoa zaie aniztasuneko eta ezberdintasuneko elkarren onarpenera bilakaera politikoa ibiltzea. Nolatan onartu orain biktimen irudikapena frankismoko caido-en antzera egitea, Causa General-ak hala iradokita?

Lehia ideologiko nagusi hau irabazteko argudio arras tinko eta indartsuak daude; besteak beste, politiko presoan -edo preso politikoan- eta makro-epaiketa politikoan izate ukazina. Ba ote da munduan Otegi edo Bateragunekoak baino preso politiko petoagorik? Mezu hauen izaera azpimarratzeko iradoki dugu hainbestetan ETAk erakunde zibila bilakatu beharko lukeela.

Betiere Julen Madariagaren lekukotasuna berezia eta enblematikoa da. ETAREN sorrera, jardura eta bukaerako xedeak, izaerak eta atxikimenduak soilik politikoak izan zirela frogatzeko ez dago Madariagarena baino testigantza ezin erantzunagorik. Madariaga, Txillardegi eta gure lagun eta kide izan ditugun hainbestek mezu horixe erakarri diote euskal gizarteari, lehenxeago aipatutako Julenen esaldiaren ildotik.

Aralar alderdiak omenaldia eskaini zion Julen Madariagari, bertan ginelarik ezker abertzaleko alderdi guztiak. Artikulu honetakoak izan ziren orduan jaulkitako adierazpenak. Orain Madariagaren lekukotasuneko liburu-aren zain gaude: Egiari zor.

▶ INFO	▶ IRITZIA	▶ NAIZ +	▶ AGENDA	▶ BIDEOAK	▶ ERREGISTROA
▶ EUSKAL HERRIA	▶ EDITORIALA	▶ POSTONTZIA	▶ BIDALI EKITALDIA	▶ ARGAZKI GALERIAK	▶ KONTAKTUA
▶ MUNDUA	▶ ARTIKULUAK	▶ FACEBOOK	▶ MUSIKA	▶ AUDIOAK	▶ PUBLIZITATEA
▶ EKONOMIA	▶ TASIO	▶ TWITTER	▶ KULTURA		
▶ KIROLAK	▶ ZUZENDARIARI	▶ NAIZ + BLOGAK	▶ HAURRAK		
▶ KULTURA	▶ BLOGAK	▶ GOOGLE+	▶ AISIA		
			▶ OHAR-TAULA		

